

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

313/2025 Foru Agindua, uztailaren 4koa. Izangai bat baztertzea karrerako funtzionario izateko 2019ko EPEko deialditik, Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorreko administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, goi mailako teknikarien klasean (Zuzenbidea)

Abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren eta abenduaren 22ko 609/2022 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko Administrazio Bereziko eskalako teknikarien azpieskalako goi mailako teknikarien klasean (Zuzenbidea, A taldea eta A1 azpitaldea, hurrenez hurren) karrerako funtzionario sartzeko 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion hautaketa prozesuaren deialdia eta hura arautuko duten oinarriak.

Irailaren 14ko 47/2023 Foru Aginduaren bidez, aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onetsi zen.

Abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren 3.1.g). oinarrian xedatutakoaren arabera, "Deialdiko plazetan sartu nahi duten izangaiek bete beharko dituzte parte hartzeko baldintza orokor hauek, bai eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten direnak ere, eta baldintza horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu arte."

Egiaztatu da izangaia ez duela bete oinarrietako 3.1.g) apartatuan ezarritako parte hartzeko baldintza orokorra, uneko hautaketa prozesua amaitu aurretik karrerako funtzionario bihurtu baita Arabako Foru Aldundiko Administrazio Bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, goi mailako teknikarien klasean, A taldean, A1 azpitaldean (Zuzenbidea), azaroaren 13ko 533/2024 Foru Aginduaren bidez, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza berezian (EPE 2022).

Interesdunari alde zuzen aurreko nahitaezko entzunaldia egin ondoren, egokitzen jo zituen alegazioak aurkeztu zituen, ezarritako epean. Laburbilduz, argudiatzen du aipatutako 533/2024 Foru Aginduaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri duela izangai batek, eta hura baietsiz gero administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskalan, goi-mailako teknikarien klasean, zuzenbidean, A taldean, A azpitaldean eskuratutako funtzionario izaera galtzea ekar dezakeela.

Horregatik, eskatzen du ezen aipatutako errekurtsoa egoitza judizialean baietsiz gero, hautaketa prozesu horretan subsidiarioki izenda dezatela, ez bailitzateke aplikatuko abenduaren 21eko 600/2022 Foru Aginduaren 3.1 g) oinarrian jasotako baztertze kausa.

Egindako alegazioei dagokienez, epaimahai kalifikatzailearen ustez deialdiaren oinarriari hertsiki lotu behar zaie. Bestela, epaimahai kalifikatzaileari esleitutako eskumenetatik harago doan jarduera bidegabea egingo litzateke, eta hori ez dago jasota hautaketa prozesuaren oinarrietan.

Ondorioz, epaimahai kalifikatzaileak, 2025eko uztailaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioako foru diputatuari proposatzea hautagaia baztertzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzio-

nala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoan, goi mailako teknikarien klasean (Zuzenbidea) karrerako funtzionario izateko 2019ko EPEko deialditik kanpo uztea pertsona hau:

16301460A

Bigarrena. Agintzea foru agindu hau argitara dadila ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren enplegu atarian: (<https://www.araba.eus/PortalEmpleo/>).

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka, prozesutik behin betiko baztertu diren pertsonak administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete zuzenean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote diputatu honi, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezestea gertatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 4a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR